

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Ostirala, 2012ko otsailaren 3a. IX. urtea. 2.354. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Tolosako Udalak neurriak hartuko ditu zezen plazako edukiera errespetatzeko

Otsailaren 16an hasiko dira Inauteriak, eta sei egunez jai izango da nagusi herrian; arratsaldeetako zezen plazako zezen festara sartzeko gonbidapenak banatuko dituzte

Eraso sexistak salatzekeo gunea jarriko dutela eta Ostegun Gizenean Aurrera elkarteak egin ohi duen danborrada aurreratu egin dutela dira berrikuntzetako batzuk **04-5**



Tolosako bazterrak zuri geratu ziren atzo. I. TERRADILLOS



Edurne Mencia, Ibai Iriarte, eta Jokin Monfort Inauterien aurkezpenean. A. IMAZ

### Denboraleak zuriz jantzi ditu eskualdeko txoko eta bazterrak

Tolosaldean eta Leitzaldean egun osoan bota zuten elurra, atzo; izotzarekin arreta mantendu beharko dela gaur, diote aurreikuspenek **07**

### Elena Cal hil zuen gizonari diru laguntzarik ez ematea eskatu dute

Tolosako Bilgune Feministak eta Berdinbidek, mozioa aurkeztuko dute udalean eraikitaren inguruko hainbat aldarrirekin **02**

### Krisiari aurre egiteko borroka plana behar dela esan du EH Sozialistak

Anoetan hitzaldia eskainiko dute gaur, 18:00etan, eta Tolosan, Otsabi gazte lokalean izango dira otsailaren 7an, 19:00etan **03**

### Bilduko hautetsiak azpiegitura lan handien kontra azaldu dira

Bihar Donostian egingo den manifestaziora joateko deia egin dute Tolosaldeko zinegotziek; «Gipuzkoaren izaera eta izana guk erabaki behar ditugu», esan dute **03**

Elketa Jatetxea



Bihartik aurrera irekita!

- ♦ Eguneko menuak
- ♦ Asteburuko menu berezia
- ♦ Plater konbinatuak

ENKARGUZ

- ♦ Enpresetako bazkariak
- ♦ Bataioak
- ♦ Jaunartzeak
- ♦ Txerrikumea
- ♦ Babarrun jana
- ♦ Arkumea
- ♦ Umeentzako urtebetetze festak
- ♦ Ezkondu aurreko agur jaiak

San Miguel bailara, 2 • Hernalde •  
Erreserba egiteko: 943 65 21 16  
[elketajatetxea@hotmail.com](mailto:elketajatetxea@hotmail.com)

**Tolosa**↓ **Asteburuko kirola****SASKIBALOIA**

**09:00.** Usabalgo goiko kantuan: Infantil mutilak, Take Bedaio-Askatuak; Infantil neskek, Take Montesku-Landaberri; Infantil neskek, Take Izaskun-Eskoriatza.

**12:00.** Usabalgo goiko kantuan: Kadete mutilak, Take Tovar-OKE; Kadete neskek, Take Urkizu-Bera Bera.

**16:00.** Usabalgo goiko kantuan: Gizonezko seniorrak: Take Orbela-Beizteinberri.

**18:00.** Usabalgo goiko kantuan: Gizonezkoen nazional maila, Bide Bide-Zarautz.

**Igandea, 10:00.** Usabalgo behetikokantxan: neskek, Take Eko-Atlético S.Sebastián.

**ARETO FUTBOLA**

**09:30.** Usabalgo beheko kantxa: Infantil mutilak, Laskorain-Lasarte.

**10:30.** Usabalgo beheko kantxa: Kadete mutilak, Laskorain-Zarautz.

**16:00.** Usabalgo beheko kantxa: Gizonezkoen Euskal Liga, Tolargi-Hirukide Tolosala.

**18:00.** Usabalgo beheko kantxa: Gizonezkoen Gipuzkoako liga 1.maila, Laskorain-Oiartzun.

**ESKUBALOIA**

**Igandea, 10:30.** Usabalgo goiko kantxa: Kadete mutilak, Tolosa-Zarautz.

**12:00.** Usabalgo goiko kantxa: Junior mutilak, Tolosa-Urola.

**FUTBOLA**

**09:00.** Infantil neskek: Tolosa-Añorga.

**10:30.** Kadete mutilak: Tolosa-Aizkorri.

**12:00.** Kadete neskek: Tolosa-Aloña Mendi.

**13:30.** Ohorezko infantil mutilak: Tolosa-Amaika Bat.

**15:30.** Junior emakumezkoak: Tolosa-Intxaurdi.

**15:30, Berazubín.** Gizonezkoen ohorezko erregional maila: Tolosa-Oiartzun.

**17:30.** Senior emakumezkoak: Tolosa-Lagun Onak.

**Igandea, 09:30.** Infantil mutilak: Tolosa-Villabona.

**Gutunak****18 urte Zuhaitz Eguna antolatzen!**

Jadanik Gabonak ahaztuta dauzkagu, hurrengo helmuga Inauteriak dira, eta horrela urtea aurrera doa, etapak gaintzen. Baina 2012an Inauterietan murgildu baino lehenago urtero errepikatzen den beste zita garrantzitsu bat dugu: Zuhaitz Eguna. Tolosan otsailaren 4an ospatuko dugu, zuhaitz eta landareen azoka bereziarekin batera.

Festa honetan pertsonaia berbera izaten da beti, omenaldia jasotzen duena: zuhaitza. Honetan ez dago kontrako jarrierarik, denok ados gaude merezki duela horrelako ohorerik. Zenbat ordu pasatzen ditugu diru kontuak ateratzen bizirauteko, edo behintzat pairatzen ari gareen egoera ekonomikoramoldatzeko! Baina... Inoiz pentsatu al dugu nolako kostua izango luketen zuhaitz batek ematen dizkigun zerbitzuek? Eta beharrezkoak dira benetan. Hartu kalkulagailua, eta hasi kontuak ateratzen: itzala eman digute + hiria oxigenatu eta atmosferara isurtzen dugun CO2 finkatu + zarata leuntzen dute + ingurumen-inpaktuak gutxitzen dituzte + usain gozoa isurtzen dute + lasaitzen laguntzen gaituzte, estresa gutxitzen, bizi kalitatea hobetzen laguntzen digute + aisialdiko jarduerak eta kirola egiteko lekua eskaintzen digute + artelanak eta elementu arkitektonikoak egiteko materiala ekoizten dute + interes turistikoak pizten dute, hiriko diru-sarrerara handituz +... Zerrenda luzea da. Izango al genuke dirurik kantitate hori ordaintzeko? Eta hau guztia musutruk, ez hipotekarik ez mailegurik, zuhaitza bai esku zabal!

Gure gizartean diruz ordaintzen dena bakarrik baloratzeke joera dugu, baina oraindik badira, diruarekin ordaintzen ez diren gauza asko.

Eskerrak!!

■ **TIZ-eko lan taldea.**

**Elena Cal hil zuen gizona 'persona non grata' izendatzeko eskatuko dute**

Pablo Jorge Simaoren epaia salatuko dute Bilgune Feministak eta Berdinbidek, mozio baten bidez

**Itzea Urkizu**

Pablo Jorge Simao, 2010eko urtarrilean Elena Cal labankadaz erail zuen gizona, *persona non grata* izendatzeko eskatuko dute udalaren mozio baten bidez, Tolosako Bilgune Feministak eta Berdinbide elkarrekin.

Pablo Jorge Simaori hasieratik egotzi zioten hilketa, eta espetxera bidali zuten. Epaiketa, ordea, ez zen urte eta erdi beranduagora arte egin; fiskalak hamalau urteko espetxe zigorra eskatu zuten arren, epaileak hiru urte eta erdi zigorra ezarri zion, «eraiketa aurrez pentsatu gabea eta zuhurtziagabekeriako homizidioa» izan zela leporatuz. Gaur egun, bi urte kartzelan pasa eta gero, Tolosan bizi da Pablo Jorge Simao.

Egoera honen aurrean, lehenik eta behin, Tolosako Bilgune Feministak eta Berdinbidek, «guztiz salatu nahi» dute, epaileak hartu duen erabakia: «Berriz ere agerian geratu da emakume erasotuek justiziaren aurrean duten



Bilgune Feministak eta Berdinbidek egin dute eskaera. I. URKIZU

babesgabatasuna». Kasu zehatz honetan, Elena Cal eskalea izateak «eragin zuzena» izan duela uste dute Bilgune Feministak eta Berdinbidek: «Horrek hirugarren mailako herritar bilakatzen al du? Ahanzturan geratu behar al du bere izateak, eta lur azpian bere duintasunak? Ez gaude horretarako prest».

**«Ez goaz kartzela babestera»**

Agerraldian, argi utzi dute ez doazela espetxe sistema babestera; beren helburua «epai bidegabe honen ondorioa argi azaltzea» da: «Ondorio nagusietako bat hau da: Elena Cal erail zuen gizasemea ezer gertatu ez balitz bezala dabil Tolosako kaleetan».

Honen aurrean Tolosako Udalak ere bere ardura duela uste dute Tolosako Bilgune Feministak eta Berdinbidek, eta hiru eskaera zehatz egin nahi izan dizkiote udalari.

Batetik, Pablo Jorge Simaori diru laguntzarik ez ematea eskatu nahi diote Tolosako Udalari. Era berean, Pablo Jorge Simao *persona non grata* izendatzeko proposamena lutzatuko diete udal ordezkariak. Azkenik, indarkeria sexista sufritu duten, eta gaur egun pairatzen duten emakume guztien omenezko oroigarri bat ezartzea eskatuko diote udalari: «Ahanzturan gera ez daitezen, beste emakume askorekin gertatu izan den bezala».

**Nikaraguako emakumeen aldeko merkatu txikia antolatu dute zortzigarrenez amaroztarrek**

Otsailaren 7tik 12ra bitarte zabalik izango da Amarozko merkatu txikia, kultur etxeko areto nagusian

**I. Urkizu**

Zortzigarren urtez, Amarozko auzo elkarrekin merkatu txikia antolatu du Nikaraguako emakume zentro baten alde.

Hain zuzen Xochilt Acalt du izena emakumeen zentroak, eta Malpaisillo herrian dago; herrialde hartako eremurik behartsuena da hau.

Xochilt Acalt zentroak, emakume gazte, heldu nahiz zaharrak aritzen dira hezten. Alfabetatzea-

rekin hasten dira, eta zentrotik pasatuko hainbat emakume unibertsitate ere heldu direla jakinarazi dute Amarozko auzo elkarrekin merkatu txikia. Hauetariko gehienek nekazaritza edo albaritza ikasketak egin dituzte, eta bere lursailetan lanean ari dira gaur egun.

Era berean, genero ikuspegia aintzat hartzeko prestakuntza jasotzen ari dira emakumeok, eta bide honetatik, «Nikaraguako herrialdi hori garatzeko ekintzaile dira, parte hartzearen bultzatzaile izateaz gain».

Malpaisilloko zonaldean aurreapauso nabarmenak eman dituzte azken urteotan, eta Amarozko auzo elkarrekin merkatu txikia «hori aparta eta bistakoa» dela diote.

Honegatik guztiagatik, eta «honen etenik izan ez dezan», Tolosako herritarren laguntza eskatu dute amaroztarrek: «Pairatzen ari garen krisi larri honek, dudarik gabe eragin negatiboa du emakumeen zentro horrek orain arte jasotzen zuen laguntza, kultur eta gizarte lanetan aurrera jarraitzeko». Beraz, tolosarrok baino egoera «larriago eta dramatikoagoan bizi diren emakume nikaraguar horientzat gure laguntza ekonomikoa nahitaezkoa» dela gaineratu dute.

Merkatu txikia 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara izango da zabalik, eta nahi duenak, diru laguntza zuzenean ere eman ahal izango du, Kutzako honako kontuan: 2101 0081 15 0124410788.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Greba orokor baten beharra ikusten du Euskal Herria Sozialistak

Kapitalisten erasoen aurkako kampainaren barruan, hitzaldiak eskainiko dituzte Anoetan eta Tolosan

**Eneritz Maiz** Tolosa

Euskal Herria Sozialistako kide-entzatzat, gaur egungo krisi kapitalista eta bere ondorioak ez dira berehalakoan pasako. «Garai historiko oso bati eragingo dio, eta ezegonkortasun soziala, ekonomikoa eta politikoa eguneroko ogi bihurtuko dira denbora luzean», adierazi zuten.

Atzo Tolosako Engels Ateneoan agerraldia egin zuten: «Inolako zalantzarik gabe, erasoaldiari aurrean jar dakiokkeen indarra botesuagoko da: langile klase eta gazteria antolatua». Programa antikapitalista bat eta gizartearen eraldaketa sozialista helburutzat izango duen borroka plana dituzte buruan.

«Hori posible izan dadin, beharrezkoa da gure klaseko erakundeek erasoen eta kapitalismoaren aurkako borroka eraginkorra antolatzea. Oinarrizko eginkizu-

netako bat, dauden borroka elkartzeari, nabarmendu zuten. Eta jasaten ari garen erasoaldia-aren aurka greba orokor berri bat antolatzea funtsezkoa dela uste dute. Datoren asteetako eta hila-beteetako borroka erabakigarria izango delakoan daude.

«Orain, PPren gobernuaren erasoaldia dator. Langile klasearen bizi baldintza duinak mantentzeko oinarrizko eskubide sozialak burgesiaren jo puntuan daude. Erasoaldia gogorra eta larria da oso, eta gainera kapitalistek are gehiago zabaltzeko asmoa dute», gaineratu zuten.

Urrian, kapitalisten erasoen aurkako kampainari hasiera emateko Tolosako Engels Ateneoan ekitaldi publiko bat antolatu zuten. Ondoren, hitzaldiak eman zituzten, eta jarraipena emateko, beste hainbat hitzaldi emango dituzte: Anoetako gaztetxean, Tolosako Otsabi gazte lokalean, Soraluze, Gros, Pasaia, Sopela eta Leioako gazteteetan eta Iruñean, Bilboko eta Gasteizko unibertsitateetan emango dituzte. Kampaina honetan, irtenbide iraultzaile eta antikapitalista defendatzen dituzte.

«Jasaten ari garen erasoaldi la-



Tolosako Engels Ateneoan, Euskal Herria Sozialistako kideak. E. MAIZ

tzaren aurrean beharrezkoa da gehiagora joango den, eta jarraipena izango duen langile klasearen mobilizazio plan bat, oinarrizko puntu bezala greba orokor berri baten berehalako deialdia izango duena», gaineratu zuten.

## «Langileen borroka elkartzeari»

Sindikalgintza borrokalaria beharrezkoa dela diote. «Bankuak salbatzeko erabiltzen duten diru publikoa lanpostuak salbatzeko erabili behar da. Hau da irtenbide bakarra enpresa itxiereri eta kale-eratzeko masiboei aurre egiteko. Baina hau borroka irekian soilik lortu daiteke», esan zuten.

«Oinarrizkoa da zuzendaritza sindikalek borroka egutegiak antolatzea eta poligonoetan, herrietan eta auzoetan propaganda egitea, egoeraren berri emateko eta mobilizazioak antolatzea». Horretaz gain, «kaleratzei eta en-

## ↓ Egitaraua

### HITZALDIAK

■ **Anoeta.** Anoetako gaztetxe-ko hitzaldia gaur, hilak 3, ostirala 18:00etan izango da.

■ **Tolosa.** Tolosako Otsabi gazte lokalean, berri, hilaren 7an, asteartean izango da, 19:00etan.

presa itxiereri aurre egiteko modu onena, gatazkan dauden edo arazoak dituzten enpresetako borroka koordinatzea da bateratzea da». Arazo berdinaren aurrean, «langileen indarra biderkatu egiten da mobilizazio bateratu eta koordinatuekin», ekarri zuten gogora. «Langile klasearen borroka antolatu eta koordinatua da bidea. Oinarrizkoa da, beraz, Tolosaldean ere, gatazkan dauden enpresetako langileen borroka elkartzeari», argitu zuten.

Estrategia politikoa iraultzailea eta eztabaidarako benetako metodo demokratiko eta adiskidea, iritziak eta kritikak egiteko erabateko askatasuna duena, beharrezkoak direla zioten. «Klaseko sindikatuek, ezker abertzaleak, ezkerreko erakundeek, langabeteak, langile etorkinek eta gazteriak fronte bakar zabala bultzatu behar dute kapitalisten eraso planak atzera botatzeko borrokan».

Bide honetan, positibotzat hartzen dituzte sindikatuek eta ezker abertzaleak deitutako mobilizazioak: «Baina beharrezkoa da mobilizazio hauek jarraipena izatea. Greba orokor horrek ez luke bukaera izan behar, mobilizazio gehiago eta zabalagoak ekarri, eta erasoak geratuko lituzkeen prozesu baten hasiera baizik».

Euskal Herria Sozialista kapitalisten erasoen aurkako kampaina zabaltzen ari da. Sindikatu, ezkerreko erakunde, gaztetxe edo

# Donostiako manifestazioarekin bat egin du Bilduk

Eskualdeko hautetsiek babesa eman diote azpiegitura lan handien aurkako manifestazioari; bihar 17:30ean izango da

**Erredakzioa**

Tolosaldeko Bilduko udal hautetsiek, bihar, hilak 4, Donostiako Bulebarrean azpiegitura lan handien aurka burutuko den manifestazioarekin bat egin dutela adierazi dute. Atzo, Tolosako pleno aretoan elkartu ziren, eta murrizketen aurrean gehiengo sindikalak deitutako mobilizazioak bere egiten dituzte.

«Hainbat eragilek, Gipuzkoa desberdin baten aldeko hautua aspaldi egin zuten. Gipuzkoaren oinarri garen gipuzkoarren ahots eta hitzak dituzte aintzat eta protagonista. Gipuzkoaren izaera eta izana, gipuzkoarrok erabaki be-

har dugulako», diote hautetsiek. Azken urteetan, «interes ekonomiko eta alderdikoeekin soilik gidatu da. Herriari bizkar emanaz», gaineratu zuten.

Azpiegitura erraldoi ugari, «ezinbesteko eta lehentasunezko» jarri nahi izan dituztela salatu dute: «Abiadura Handiko Tren-  
na, errauskailua, Jaizkibelgo superportua edota Hondarribiko aireportua, eta gutxi ez balitz Nafarroan hasi eta Ezkio-Itsasora doan Tentsio Altuko Autopista».

Honen aurrean, «herri desberdinen ordezkari garenok, bat egin dugu aldarri horiekin. Bat egin dugu, Gipuzkoak bestelako eredu baten beharra duela dioten horiekin. Dagokigun tokitik eta dagokigun moduan zein dagozkigun ardura guztiekin, gure herrien nortasunetik lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu», nabarmendu zuten.

«Gure herrien onura kolektiboa bultzatzeko ditugu», azaldu zu-

ten. Eta «gure herritarrentzat bidezko diren eskaerak babestu zein kalean defendatuko ditugu», adierazi zuten.

«Azpiegitura erraldoi guzti horiek, ingurumenean, gizartean eta ekonomian dituzten kalteen inguruko eztabaida sozialik ez da eman, ez eta egiten utzi ere. Egund, bizi dugun egoera ekonomiko latz honetan, azpiegituren eta garape-

naren eztabaida guzti hauek pil-pilean ditugu». Eta guztion artean: «zer nolako Gipuzkoa nahi dugunaren norabidean kokatu behar ditugu».

Bestalde, «murrizketen artaziak, egun bat bai eta bestea ere bai, oinarrizko eskubide asko erasotzen ari zaizkigu herritarroi», ekarri zuten gogora. Hori dela eta, «manifestazioa eta gehiengo

sindikatuaren mobilizazioak ere gure egiten ditugu». Hala nola, «langileriaren eskubide murrizketen aurrean kalera aterako gara. Azken batetan, bi kasuak ere herritarren bizkar erabakiak eta gauzatuak izatea baitute norabide eta helburu». Bukatzeko, «Euskal Herriak burujabetza ekonomiko soziala behar du», aldarrikatu zuten.

## Iragarki laburrak

### ALOKAGAI

■ **Etxebizitza.** Alegiako San Juan kalean; 3 logela, terraza eta bi trasterorekin. Interesatuek, deitu 626 867636 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Tolosako Berazubi auzoan, 3 logelako etxebizitza alokatzen da. Interesatuenek 628 163722 tele-

fono zenbakira deitu beharko dute.

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Leitzan etxebizitza salgai. Aukera ezinhobea da. Lehendabiziko pisua, oso egoera onean. Bizitzera sartzeko prest dago. 90 m<sup>2</sup>. Sukaldea, bainugela, hiru logela

handi eta trastelekua ditu. Igo-gailua jarri berria eta berogailuarekin. Deitu 649 208 310 telefono zenbakira.

■ **Denda.** Frutategia, arrandegia eta urdaitegia dituen denda saltzen da lbarran. Aukera bikaina da. Interesatuek, deitu 636 143 514 telefono zenbakira.



# Inauterietan jaialdia egingo dute Jesusen Bihotza eta Fleming ikastetxeek

Bidezko merkataritzari buruzko hitzaldia antolatu dute hilaren 9an, Ekuadorreko bi ekoizleren eskutik

**Asier Imaz** Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak herriko otsailako kultur programazioa liburuxka batean argitaratu du, ohi bezala. Inauteri ukituz dator hilabetea, izan ere, Fleming eta Jesusen Bihotza ikastetxeek jaialdia egingo dute Ostegun Ginean.

Hileko ekitaldien artean, bidezko merkataritzari buruzko hitzaldi interesgarria ere aurreikusten da. Bateginik taldeak antolatu du, hilaren 9an. Hizlari bezala Ekuadorreko bi ekoizle egongo dira: Gisela Alvarado eta Liliana Bermeo.

Kirolei dagokien ez alde batetik xakea aipatu behar da, larunbatero txapelketak jokatu baitituzte kultur etxeko musika eskolan. Bestetik, eskialaren inguruko oharra zabaldu dute udaleko kirol zerbitzutik. Eski irteerara joan nahi dutenek izena emateko aukera zabalik dute, eta horrela egongo da plazak agortu arte.

## ↓ Egitaraua

### ZINEA

#### Bihar, hilak 4

■ **19:30ean eta 22:15ean.** Gurea aretoan *No habra paz para los malvados*.

#### Etzi, hilak 5

■ **16:30ean.** Gurea aretoan *Happy Feet 2*.

■ **19:30ean.** Gurea aretoan *No habra paz para los malvados*.

#### Hilak 6, astelehena

■ **21:30ean.** Gurea aretoan *No habra paz para los malvados*. Ikusleen eguna.

### EKONOMIA

#### Hilak 9, osteguna

■ **19:00etan.** Bidezko merkataritzari buruzko hitzaldia. Villabonako udal txerriaren erabilera anitzeko aretoan, 19:00etan. Bateginik taldeak antolaturik, Gisela Alvarado eta Liliana Bermeo ekuadorarren eskutik.

### ANTZERKIA

#### Hilak 10, ostirala

■ **22:30ean.** Helduentzako antzerkia Gurean. Ez dok hiru biko-teatroren eskutik: *Laria kutsa-*

*korra mendebaldekoa*. Sarrera zortzi euro, gazte txartelarekin sei.

#### Hilak 26, igandea

■ **16:30ean.** Gurean haurrentzako pailazo emanaldia. Txirri, Mirri eta Txirribiton Juniorren *Barrre egin*. Sarrera 4,5 euro haur eta gurasoentzako.

### HEZKUNTZA

#### Hilak 16, Ostegun Ginean

■ **15:00etan.** Fleming eta Jesusen Bihotza ikastetxeen jaialdia eta merienda.

■ **17:30ean.** Gurean doako film emanaldia: *El oso Yogi*.

#### Hilak 23, osteguna

■ **18:30ean.** Asanblada Gaztelekuan. Besteak beste, txandekin zer egin erabakiko da.

### KIROLA

#### Larunbatero

■ **16:00etan.** Xake txapelketa musika eskolan, apirila bitarte.

#### Astearte eta ostegunetan

■ **14:00etatik 16:00etara.** 12-17 urteko gazteentzat eski irteeraren izena emateko aukera, Katea Etxea Gaztelekuan.

## Zizurkilgo ur eta zabor tasen inguruko deialdia egin du udalak

**Erredakzioa** Zizurkil

Zizurkilgo Udalak azaldu duenez, ur eta zabor tasak ez ordaintzeko edo laguntzak eskatzeko epea zabalik aurkitzen da. Beharrezko dokumentazioa aurkezteko, herritarrek udaletxera joan behar du dute, eta horretarako epea hilaren 29an amaituko da.

Ur eta zaborren tasak ez ordaintzeko edo gutxitzeko asmoa duten herritarrek, informazio gehiago nahi baldin badute, udal bulegoetara joan behar dira, edo 943 69 10 12/943 69 30 66 telefono zenbakira deitu beharko dute.

## ↓ Agiriak

- Familiako kide guztien NAN-ren fotokopia.
- Errolda eta elkarbizitze ziurtagiria.
- Familiako kide guztien diru sarreren ziurtagia: errenta aitoparenen fotokopia edo egitera behartuta ez dagoenaren agiria/Langabezi txartela eta INEMetik jasotzen den laguntzaren agiria.
- Foru Haziendak emandako ondasun agiriak.

## Hiruhilabeteko afrikar dantza ikastaroa antolatu du Asvineneak

**Erredakzioa** Aduna

Asvineneak afrikar dantza ikastaroa antolatu du, eta Adunan duten egoitzan jasoko dituzte ikasgaiak bertara gerturatzen direnek. Hilaren 7an, asteartean, hasiko da, eta hiru hilabete iragungo ditu. Marie Toure irakasle ginearrak emango du ikastaroa, 19:00etatik 21:00etara, eta perkusioa zuzenean entzuteko eta jarraitzeko aukera egongo da. Klaseak asteartero izango dira.

Izena emateko plaza mugatuak daudela azaldu dute Asvineneatik, eta erreserba egin nahi duenak [laidall@hotmail.com](mailto:laidall@hotmail.com) helbidera bidali behar du eskaria. Bazkideek 120 euro ordaindu behar dute ikastaroa, eta ez direnek 135 euro. Informazio gehiagorako 691 62 66 06 telefono zenbakira deitu behar da.

## ‘Sare sozialak: seguru nabigatzea’ hitzaldia, hilaren 9an

**Erredakzioa**

Jesusen Bihotza ikastolatik azaldu dutenez, gurasoei zuzendutako *Sare sozialak: seguru nabigatzea* hitzaldia atzeratu beharrean aurkitu dira, hizlariak azken unean izandako ezustekoa medio. Zita berria hilaren 9an, ostegunean, izango da. Hitzaldia Txermingo liburutegiaren hirugarren solairuan izango da, 17:00etatik 18:30era.

Bestalde, Nafarroako ikastolen eta bereziko Lodosakoaren alde ekarpena egin nahi dutenek, dirua ikastolako idazkaritzara eramanez dezetela azaldu dute Jesusen Bihotzatik. Igande honetan egingo den Ibilaldi Neuratuan ere eitzeitsuak jarriko dituzte.

## → Laburrak

### Hondakinei buruzko hitzaldia bihar, 11:30ean

**ANOETA** > Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kideak Anoetako Auditorioan izango dira bihar, hilaren 4an. Bertan, hondakinen arazari buruz ariko dira hizketan, 11:30etik aurrera. Gaur egungo egoeraz eta Zero Zabor filoso-fiaren inguruan kezak dituzten herritarrak gonbidatu dituzte.

### Kaldereroetarako entsegua hilaren 7an

**IRURA** > Kaldereroak otsailaren 10ean, ostiralean, ospatuko dituzte Iruran. Loatzko musika eskola eta udala ari dira prestaketa lanetan, eta aurrez entsegua bat egiteko asmoa agertu dute. Musika eskola bertan gelditu dira hilaren 7rako, astearterako. 18:00etan hasiko dira entseguarekin, eta herritarrei zartagina eta mailua eramateko eskatu diete.

### Jaioberri eta gurasoentzat gune berria Atxulondon

**ZIZURKIL** > Atxulondo kultur etxean gela bat irekiko dute haurrak mugimendu askean hezteko aukera egon dadin, hilaren 7an. Astearte, ostegun eta ostiralean egongo da zabalik, 17:30etik 20:00etara. 0-1 urte arteko haurrak dituzten gurasoentzat, edo guraso izateko diren guztientzat zuzendu dute bertaratzeko gonbidapena.

## Irudia > Zizurkil



## JOXE ARREGI PLAZAN HASI DIRA LANAK

Atxulondo kultur etxearen aurrea eta atzealdea obretan aurkitzen dira. Alde batetik, kultur etxerako bidea berrikatu dute, lehenik eskailerak jarri eta aurrerago igogailu batekin. Atxulondoren atzealdean, berriz, etxebizitzak eraikitzeko lanak

hasi dituzte. Guztira 42 etxebizitza tasatu egingo dira bertan, eta hauetatik 41 saltzeko jarriko dituzte. Azpiegitura lan hauek gutxi gorabehera, 22 hilabeteko iraupena izango dutela azaldu dute Zizurkilgo Udaletik. **A. MAZ**

# Eskualdea zuriz estalita

Aurreikuspenak betez, mara-mara egin zuen atzo elurra egun osoan; gaurkoan, izotza izango da protagonista

## Iñigo Terradillos

Ziurrenik azken egunetan gehien errepikatu den gaietako bat izan da: «Elurra eta hotza zetorrek!». Eta baita asmatu ere iragarpenek. Nabarmen jaitsi zen atzo merkurioa termometroetan, eta ondorioz, euritan bota ordez, elur malutak erori ziren zerutik. Eta lurrean geratzea kostatu zitzairen arren, ikuspegi guztiak zuriz janztea lortu zuten.

Ondorioz, paisaia zoragarriz gozatu ahal izan genuen atzo goizetik. Alde bi erakusten ditu, baina, naturaren ezaugarri honek. Benetan polita da, eta gaztetxoek ederki gozatu ohi dute elurra-

rekin jolasean, baina oztopo eta arrisku bihurtzen denean sortu ohi du kontrako alde. Izan ere, atzokoan kalean oinez zebilenak arretaz egin behar izan zituen pausoak irrist egin nahi ez bazuen, eta errepidean zebilenak, berriz, abiadura oso motelean gidatu behar. Horrez gain, hainbat ekintza bertan behera ere geratu ziren eguraldiaren ondorioz; horrietako bat, Uzturpe ikastolaren kultur astearen baitan egitekoa ziren elkartasun kilometroa. Saharar herriaren aldeko ekimena datorren astean egingo dutela adierazi dute bertako ordezkariak.

### Eta, gaur zer?

Elurrak atzo kontuz ibiltzea eskatzen bazuen, gaur izotza da arreta eskatuko duena. Kontuz, beraz, batera eta bestera ibili behar duena. Eta, horrelakoetan esan ohi dena, etxean geratzea hobe, eta su epelean bada, zer esanik ez.



Tolosa herriaren ikuspegi orokorra, atzo eguerdi aldera. I. TERRADILLOS



Zizurkilek itxura hau zuen atzo goizean. ASIER IMAZ



Dotore ageri zen atzo Tolosako Zerkausia, soineko zuriarekin. I.T.



Elur bolak egin eta batak besteari botaz ederki igaro zuten gazteek. I.T.

## Hilberriak eta urteurrenak

### ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



### BAUTISTA ARTOLA SASIAIN

(Ramona Artolaren alarguna)

Beti ikusi izan zaitugu  
ona eta indartsua  
Nahiz eta orain entzuna duzun  
zuk zure azken kukua  
Aitona lasai, hartu atsedean  
ta gu guztion musua  
Gure amonak gordea dizu  
bere ondoan lekua.

Bilobak: Aitor, Amaia, Leire, Maialen, Oihane, Xabat, Irati

ALTZON, 2012ko otsailaren 3an.



### KOLDO ALTUNA AZURMENDI

- IV. URTEMUGA -

Urrezko eguzki disdiratsua heldu zen,  
ilundutako zeruetan zehar,  
gatibua ametsetatik iratzarri,  
bere begien gainera jeistean,  
askatasunaren bidea zuen argitu,  
Larratxori kantariari agindu,  
kimu negarti bat eraman zezan,  
ilunpeko loreengana (...)

Josune, Haimar, Olatz, Ira, Edurne eta Ekiñe



-2°  
-7°

GOIZA	ELURRA
ARRATSALDEA	ELURRA
BEROENA	1°
HOTZENA	1°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**  
Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi,  
Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zuzurkil



**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

■ **Anoeta.** Otsailaren 11ko Dantza-Soka Egunaren entsegua gaur, 19:30ean frontoian.

**JAIKAK**

■ **Tolosa.** San Blas auzoko jaien barruan gaur, 11:00etan San Blas eguneko meza nagusia, eta ondoren, bertako produktuen bedeinkapena; 12:30ean toka lehiaketa auzokoentzat eta Emendek elkarteak kideentzat; eta 18:00etatik 21:30era Elustondo anai-arrebak trikitilariak. Bihar berri, 12:00etan ume eta gaztetxoekin jolasak; 16:00etan Gipuzkoa mailako toka lehiaketa; eta 18:30etik 21:30era disko festa. Igandean 09:30ean Diana Konponezinak txarangarekin; 11:00etan elizkizuna auzoko eta Emendek elkarteak zendutako kideen alde; 12:00etan Amarozko dantza taldearen saioa; 12:30ean Unai Otaño eta Iñaki Azurmendi aizkolariak; 13:00etan Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluze bertsolarien lehen saioa, eta 18:00etan bigarrena; eta 18:30etik 21:00etara Elustondo anai-arrebak trikitilariak.

**AGATE DEUNA BEZPERA**

■ **Aduna.** Biharko Agate Deuna bezpera dela eta, 16:00etan elkartu eta 21:00ak bitarte kantuan ibiliko dira. Eguna Zabala sagardotegian afora eginez bukatuko dute. Bildutako dirua Sahara bidaliko dute.  
■ **Albiztur.** Bihar 10:30ean haurrak eta gurasoak kantuan aterako dira egun guztian zehar. Dirua eskolako beharretarako izango da.  
■ **Alegia.** Bihar 18:00etan Txin-txarri abesbatza eta Zazpi Asto-

ren Gaietan bertso taldea santsa eskean kantari ibiliko dira, Larraitz auzotik hasita. Plazan bukatuko dute, eta herritar guztiei dei egiten diete eurekin batera santsa eskean ibili daitezten. Abesbatzakoek betiko doinua kantatuko dute herritarrekin batera eta bertsolariek koplak eta bertsuak botako dituzte bat batean.  
■ **Anoeta.** Bihar 15:30ean herritar talde batek antolatuta plazan elkartuko dira eta handik baserrietara joango dira santsa eskean. Baserrietako ibilbidea amaituta, 18:00etan plazan elkartuko dira berri, kalez kale ibiltzeko. Herritar guztiei dei egiten diete santsa eskean parte hartzera  
■ **Asteasu.** Bihar batetik, herriko eskolako haurrak goizean etxetik etxe ibiliko dira; 14:30ean eskual preso eta iheslariak laguntzeko dirua bilduko duen taldea plazan elkartuko da; eta 19:00etan abesbatza eta trikitilarien taldea aterako da Elizmenditik.  
■ **Bidegoian.** Bihar arratsalde, iaz bezala, Agate Deuna bezperako koplak etxetik etxe kantatzen ibiliko dira. Kantuan ibilitakoei, afariarekin emango die amaiera egunari.  
■ **Ibarra.** Bihar 10:00etan San Bartolome plazatik abiatuko dira, ospela aldera. Eguerdian Xepla elkartearen bazkalduko dute indarrak hartzeko, eta 17:00etan berri plazatik hasiko dira izaskun aldera.  
■ **Ikaztegieta.** Bihar arratsalde herriko emakumeak abesten ibiliko dira. Lehenik baserri baserri ariko dira kantuan, eta gero herrigunetik pasako dira. Eguna sagardotegian bukatuko dute izango da.  
■ **Leitza.** Bihar 18:00etan, urtero bezala, plazatik abiatuta he-

rriaren barrena koplak kantuan ibiliko dira. Bertako musikariak eta bertsolariek laguntzarekin buelta egindakoan, karrapean mokadu jatea ere izanen da.  
■ **Tolosa.** Bihar Lizardi elkarteak kantuan aterako dira, 18:00etan elkartetik bertatik.  
■ **Zuzurkil.** Bihar 17:00etan San Millan eskolako haur eta gurasoak kantari aterako dira 17:00ak aldera plazatik. Auzo eta kaleetatik ibiliko dira, eta ibilbidea 20:00ak aldera bukatuko dute afari-merienda egiteko. Biltzen duten dirua El Salvadorrera bideratuko dute.  
**TXOTXONGILOAK**  
■ **Tolosa.** Kataluniako Engruna Teatre taldearen *La muñeca pelona* bihar, 18:30ean, Topic zentroan.

**ANTZERKIA**

■ **Tolosa.** *Bodologuak* lana gaur, 20:30ean, Leidor aretoan. Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu izango dira taula gainean.

**INAUTERIARIK**

■ **Lizartza.** Inauterien ekitaldi nagusiak datorren asteburuan izango badira ere, bihar hasiko dira Lizartzako Inauteriak. 12:00etan plazan gibelak janzeko dituzte jai egunak.  
■ **Berastegi.** Hilaren 10 eta 11n Inauteriak ospatuko dituzte Berastegin eta, larunbatean, hilak 11, besteak beste, herri afari egiteko dute. Gaur da txartelak hartzeko azken eguna, eta 20 euroren truke Urepele elkartearen eta Zelai tabernan eskuratu daitezke.

**Agurrak**



**Zorionak sorgintxo!**  
**Uxue Munduate Zabala (Anoeta).** Bihar larunbata, 5 urte beteko dituzu. Muxu handi bero bat zure anaia Aitorren partetik.



**Urte askoan!**  
**Tere Albizu (Tolosa).** Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

**agurrak**

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.  
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

**BIHAR**

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 65.  
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

**ETZI**

■ **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria kalea, 46.

Telefonoa: 943 67 32 74.  
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

**ETZIDAMU**

■ **Tolosa.** Morant, E. Zaballarreta, 1. Telefonoa: 943 67 36 49.  
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



**saridunak**



**sarrerak**

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

- Elena Aizpurua (Tolosa)
- Olatz Olaetxea (Tolosa)

Otsailak 5 · Igandea  
18:00etan, Donostiako Ilunben

**LAGUN ARO GBC**  
Blancos de Rueda  
saskibaloia partida



Saridunak, partidua hasi aurretik harpidedun txartelarekin Ilunbenko leihatilara hurbildu daitezela.